

Euskal literatura gaztelaniaz



BEGO MONTORIO URIBARREN

Sarrera

Literatura euskaratik gaztelaniara itzultzerakoan sortzen zaizkigun berariazko arazo batzuk aipatu nahi ditut artikulu honetan, eta, horretarako, Antxiñe Mendizabalen *Odolekoak* nobela (Elkar, 2020) *Vínculos* (Consonni, 2022) bilakatzeko prozesua hartuko dut oinarri, arreta berezia jarritz beste itzulpen batzuetan ere agertu zaizkidan auzietan.

Vínculos itzulpenean egin ditudan hautuak eta hartu ditudan bideak aztertu aurretik, garrantzitsua iruditu zait azaltzea euskaratik gaztelaniara jarduten dugunean zer testuingurutan kokatzen garen; izan ere, literatura euskaratzean ez bezalako errealitatea topatuko dugu obra motei, idazleekiko harremanei eta hartzaileen ezaugarriei dagokienez. Ezin dut zehaztu aldagai horiek noraino baldintzatzen duten azken emaitza, baina seguru nago badutela eragina, eta kontuan hartzekoak iruditzen zaizkit.

Itzulpen arazo zehatzen atalean, beste hizkuntza konbinazio batzuetan ere sortuko zaizkigun gai berak jorratuko ditut gehienetan, baina euskaratik gaztelaniarako bidean hartzen dituzten berezitasunei erreparatuko diet berariaz, *Vínculos* testuan hartu ditudan erabakiak zein izan diren azalduta.

Bigarren atalean munta oso desberdineko gaiak bildu ditut, hizkuntzakoak batzuk eta kulturekin lotuagoak beste zenbait, baina halaxe azaltzen zaizkigu itzulpenetan, nahas-mahas, eta hori islatu nahi izan dut.

Horrekin batera adierazi nahi dut beste alor batzuk ere landu zitezkeela, baina jardunean antzeman dudanaren kontakizuna da artikulu hau, neurri handi batean, eta ni baino adituagoen esku utziko dut, esaterako, euskaratik gaztelaniarako itzulpenak estilistika konparatuaren ikuspegitik aztertzea –esaldien barruko ordena aldaketak eta bestelako kontu sintaktikoak, adjektibazioa, eta abar–. Zinez eskertuko genituzke halakoak!

Itzulpenaren ingurumariak

Obra mota

Lehenagotik ere banuenez susmoa euskararako eta euskaratik gaztelaniarako literatura itzulgaien tipologia desberdina dela, Nor da Nor datu-basera jo dut datu bila, eta, bai, egiaztatu egin dut ustea: ez dira mota bereko lanak itzultzen euskarara edo euskaratik gaztelaniara. «Inportatzen» eta «esportatzen» den literatura testuen arteko alde hori literatura sistema guztietan zein puntutaraino gertatzen den, hizkuntza gutxituen berezitasuna ote den eta abar aztertzea ere beste batzuentzat utziko dut, eta, atal honetan, euskaratik gaztelaniarako itzulpen enkargu bat jasotzen dugunean kontuan hartzekoa iruditzen zaidanari begiratuko diot.

Adibidetarako, 2021ean eta 2022an argitaratu ziren literatura lan itzuliak (HGL bazter utzita) aukeratu ditut: euskaratutakoak, batetik, eta euskaratik gaztelaniara itzulitakoak, bestetik. Nahita hautatu dut oraintsuko denbora tarte bat, azken urteotan nabarmen handitu delako testu garaikideen euskal itzulpenen kopurua (baita jatorrizkoa plazaratu eta berehalako argitalpenena ere), eta atzeragoko begiradak egungo errealitatea lausotu zezakeen. Hona datuek ematen diguten irudia:

- Euskaratik gaztelaniara itzulitako liburu gehien-gehienak 2019-2022 urteetan idatzitakoak dira. Hau da, jatorrizkoa argitaratu eta, gehienez ere, hiru urteren buruan itzulitakoak. Salbuespena dira lehenagoko testuak biltzen dituen antologiaren bat, idazle oso ezagunen berrargitalpenen bat eta antzekoak, baina erabateko gehiengoak dira bizirik eta jardunean diren idazleen obrak. Horien artean badaude jada ibilbide sendoa duten eta lehenago ere gaztelaniara itzuli diren egileen obrak, eta badaude idazle hasi berrienak ere.
- 2021-2022an euskarara itzulitakoak guztiz bestelako irudia ematen digu. Bada XIX. mendeko libururik (%5 edo); oso handia da XX. mendeko lanen presentzia, eta ez bakarrik mende amaierakoak; XXI. mendeko lanak ere ez dira falta, baina, gaztelaniarako itzulpenetan ez bezala, ez dira azken hiru urteetakoak gailentzen.

Labur esanda, euskal literatura gaztelaniaz emateko sortzen diren enkargu ia guztiak egungo egileenak izaten dira; askotan, inoiz beste hizkuntza batera itzuli ez diren obrak.

Jatorrizko lanaren zer-nolakoez gain, bada beste berezitasun bat euskara-gaztelania konbinazioan: testu itzulia zubi testua izan daiteke. Idazleek eurek egindako itzulpenetan –autitzulpena oso hedaturik dago egungo euskal idazleen artean– ez dakit kontuan hartzen ote duten hori, baina, niri dagokidanez, aitortu behar dut artikulua hau idazten hasi arte ez zaidala halakorik bururatu. Beraz, argi dago itzulpenak egiterakoan ez dudala kontuan izan zubi testu gisa erabiltzeko aukera hori, eta, pentsatzen jarrita, jokabidea aldatzeko arrazoirik topatu ez dudanez, hala egiten jarraitzeko asmoa dut.

Idazlea

Lehen esan dudan moduan, oso litekeena da bizirik dauden egileen lanak itzuli behar izatea, eta horrek ate bat zabaltzen digu egilearekin harreman zuzena izateko. Euskarara itzultzean ere egon daiteke aukera hori, baina askoz gutxiagotan, eta traba gehiagorekin, seguruen. Euskaratik

ari garenean askoz errazagoa da egilearekin zuzen-zuzeneko harremana izatea, eta gerta daiteke egilea bera ere ezagutzea, euskal literaturaren mundua ez baita hain zabala.

Gauza gehienek bezala, horrek badu bere alde ona eta bere alde txarra. Ona izan daiteke egilearekin argitu ahal izatea nahasiak iruditzen zaizkigun pasarteak, sumatutako erreferentziak baieztatu ahal izatea, eta abar. Baina, aldi berean, hizkuntza konbinazioarekin zerikusirik ez duen dilema bat planteatzen zaigu: idazlearena ote da irakurketa «zuzena», itzultzerakoan nagusitu behar dena? Eta idatzita gelditu den horrek zabalik uzten baditu beste irakurketa batzuk? Nik ez dut erantzun biribilik, baina esango nuke idatzitakoari eman izan diodala lehentasuna.

Idazleei begiratuta, alabaina, badago gure lanean askoz eragin handiagoa duen beste ezaugarri bat: itzultzen ditugun egile horietako gehienek, gaztelania jakiteaz aparte, gaztelania dute euren hizkuntza. Eta horrek eragina izan dezake gure itzulpenaren azken bertsioan.

Uste dut euskararako itzulpenetan oso bakanetan gertatzen dela halakorik. Niri bi etorri zaizkit burura, biak komikiak. Lehena, *Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak*, Dani Fanorena, zeinak harreman estua izan zuen Koldo Izagirre itzultzailearekin. Bigarrena, neuk euskaratutako *Baleak ikusi ditut*, Javier de Isusirena; harremana ez zen hain jarraitua izan, baina xede testuari buruzko galderaren bat eta proposamenen bat egin zidan Isusik. Euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan, ordea, ia beti egingo dugu topo xede hizkuntza primeran menderatzen duen egile batekin.

Nire esperientzian, askotarikoa izan da egileek testu itzuliarekin izan duten inplikazioa. Mutur batean, itzultzaileak eta zuzentzaileak atondutako azken bertsioaren irakurketa orokorra egitera mugatu direnak daude, eta, beste muturrean, testua zehatz aztertu eta orrazketa proposamen ugari egin dituztenak. Mutur bien artean, berriz, kasuistika zabala.

Itzulpen bakoitza mundu propio bat denez, nire jokaera ez da beti berbera izan, baina argi izan dut, itzulpenaren egilea naizen aldetik, neuk (ere) egon behar dudala ados argitaratuko den testuarekin; bestela esanda, bidean izandako aldaketak eta negoziazioak gorabehera, neuk ematen diot azken oniritzia testuari.

Beste kontu praktiko batean ere berdin jokatu izan dut beti: egileei erakusten diedan testua testu amaitua da, nolabait esateko, edozein enkargutan zuzentzaileari pasatuko niokeen berbera. Ez diet bidean laginik pasatzen jakiteko nolako itxura hartzen dioten, tonua haiek espero zutena ote den... Edizio-zuzenketa prozesuan aldaketak egingo ditudala jakin arren, nire ustez egokia den testu oso bat aurkezten diet.

Neurri batean, nire itzultzeko moduarekin du zerikusia jokamolde horrek, testu osoaren lehen zirriborro batetik abiatzen bainaiz normalean (zakar samarra, zalantzak markatuta dituena...), eta hori lantzen joaten naiz; beraz, amaitu arte ez dut izaten inori erakusteko moduko zatirik. Baina, horren gainetik, badago planteamendu orokorrago bat, abiapuntukoa: nik ez dut sekula gaztelaniaz idatziko egileak idatziko lukeen moduan, eta idazleak ere hala onartu behar du. Horregatik aurkezten diet itzulpen oso bat, nire ustez ondo funtziona dezakeena, nirea, behar diren orrazketak eginda bere sentituko dutelako esperantzan. Orain artekoan, gehienei «arraroa» egin zaie hasieran gaztelaniazko euren ahots hori, baina arazo handirik gabe onartu dute, eta gustura gelditu dira azken bertsioarekin. Tira, haiei galdetu beharko litzaiekie, baina hori da niri adierazi didatena.

Ataltxo hau amaitu aurretik azpimarratu nahi dut oso aberasgarria gertatu zaidala beti idazleekiko iritzi truke hori. Hasteko, emaitza hobetzen lagundu duelako, baina baita niri erakutsi didanagatik ere. Eta argitu nahi dut zuzentzailea ere –batez ere libururako berariazko zuzentzailea denean– sartzan dudala ekuazioaren barruan, zuzentzaileen ekarpenik gabe hankamotz geratuko bailirateke itzulpenak; nireak, behintzat, bai.

Batzuetan amorragarria ere gerta daiteke orrazte-zuzentze-iruzkintze prozesu hori –zuzenketa proposamen baten aurrean, nor ez dio bere buruari esan «zergatik ez zait niri otu?», «jakina, horrela askoz hobeto!»–, baina ikasbide paregabea iruditzen zait: besteenak ikasteko, norberak egindako hautuen zergatiari erreparatzeko... Etengabe ikasten jarraitzeko bidea zabaltzen digu, eta ez da gutxi.

Ez ahaztu, alabaina, horrek guztiak denbora eta dedikazioa eskatzen duela, eta, enkargu ordaindua denean, kontuan hartu beharrekoa dela tarifak eta epeak markatzerakoan. Denok dakigu errentagarritasun ekonomikoa ez dela literatura itzulpenaren ezaugarrietako bat, baina ondo dago, betiere, non sartzan garen jakitea.

Hartzaileak

Asko hitz egin liteke hartzaileak itzulpen prozesuan duen eraginaz –gogoan hartzen al dugu literatura itzulpenetan?, noraino?, irakurle prototipiko batentzat itzultzen dugu?...–, baina gaztelaniarako itzulpenetan garrantzi berezia duen puntu bat baino ez dut aipatuko: non argitaratuko da itzulpena, norentzat da liburua?, Espainiako irakurleentzat, Latinoamerikakoentzat, guztientzat?

Esango nuke gure kasuan jakintzat ematen dela Espainiako gaztelania erabiliko dugula, gure itzulpena itsasoaz beste aldean zabalduko bada ere. Logikoa ere bada, euskal idazle gehien-gehienak Pirinioetatik gertu antzean biltzen baitira. Baina gerta daiteke «español neutroa» esaten zaion hori baliatzeko eskatzea.

Niri behin bakarrik gertatu zait, portugestetik gaztelaniarako itzulpen batekin: José Luís Peixotoren *Nadie nos mira*. Hiru argitaletxeak plazaratu zuen lehendabizi gaztelaniaz, eta, handik urtetara, Kolonbian argitaratu nahi izan zutenean, itzulpenaren mamia aldatu ez bazen ere egokitzapen ugari egin genizkion. Gogoan dut aldaketa proposamen gehienak onartu nituela, hiztegikoak batez ere (*berza* -> *col*; *coger* -> *agarrar...*), baina, nire iritziz obraren ezaugarriei eragiten zietenetan, hasierako bertsioari eutsi nion.

Euskaratik gaztelaniara egin ditudan itzulpenetan beste bat izan da hartzaileekiko nire kezka, ordea, beti erabili baitut Espainiako gaztelania: badago Euskal Herritik kanpoko irakurleek ulertuko ez duten erreferentziarik edo esamolderik? *Vínculos* liburuan oin oharren bidez argitu ditut horiek, gerorago azalduko dudanez.

Zenbait itzulpen arazo

Izenburua

Sarritan, lehendabiziko hitzekin hasten dira itzultzailearen buruko minak, izenburuarekin. Funtzio berezia betetzen du tituluak, eta, xede hizkuntzan ordain egokia lortzeko, faktore

askotarikoak hartu behar izaten ditugu kontuan: esanahia, iradokitzeko ahalmena, musikaltasuna, irakurleak erakartzeko gaitasuna... Horregatik, azkenerako utzi ohi dut izenburuaren itzulpena, obran erabat murgilduta sentitu behar dudalako jatorrizkoak iradoki dezakeena antzeman eta itzulpenera eramaten saiatzeko.

Esango nuke hizkuntza konbinazio guztietan sortzen dela arazo bera, eta ez dut uste hizkuntzen arteko gertutasunak-urruntasunak asko eragiten duenik. Esaterako, Edorta Jimenezen *Azeria eta lehoia* (Txalaparta, 2007) *El zorro y el león* (Txalaparta, 2015) bilakatu zen, hitzez hitzeko itzulpena baliaturik. José Luís Peixotoren *Nenhum olhar* (Quetzal, 1999) nobelaren kasuan, berriz, hitzez hitzeko *Ninguna mirada* baztertu, eta testuaren barruan agertzen den *Nadie nos mira* (Hiru, 2001) esaldia hautatu genuen izenbururako Eva Forest editoreak eta biok. Ez dakit azaltzen zergatik, baina hasieratik izan genuen biok argi *Ninguna mirada* ez zela titulu ona.

Vínculos liburuan, idazlearen proposamena izan zen gaztelaniazko izenburua, eta duda izpirik gabe onartu nuen. Balizko erdal tituluekin bueltaka nenbilela, «odol» hitzean neukan nik fokua jarrita, eta *Lazos de sangre*, *De una misma sangre* eta tankera horretako batzuk apuntatu nituen, haietatik tiraka zerbait ateratzeko esperantzaz; banekien hobe zela gaztelaniaz ere hitz bakarreko izenburua jartzea, baina nonbaitetik hasi behar. Eta orduan, Antxiñe Mendizabalek editoreari eta bioi idatzi zigun erdal izenerako *Vínculos* proposatuz. Itzulpenaren azken bertsioa atondu arte ez genion behin betiko onespena eman, baina lehen aldiz aipatu orduko geureganatu genuela esango nuke.

Atzera begira, uste dut bi arrazoi egon zirela nik «sangre» hitzari lotu nahi izateko. Hasteko, jatorrizkotik –zentzuz eta hitzez– gehiegi ez aldentzeko tentazio, beldur edo dena delako bat sumatu dut, eta, bestetik, liburuko pertsonaia nagusiak bezala emakumea naizenez, guretzat odolak baduelako esanahi jakin bat, bere usain eta oihartzunekin, eta hori ere presente dago nobelan: odolokideak dira kontakizunaren haria txirikordatzen duten hiru emakumeak, familia berekoak –ama, alaba eta iloba–, baina senidetasunaz gain hileroko odolak ere lotzen ditu, horretan ere odolokideak dira, liburuan agerikoa denez. Hortik abiatuta, ordea, ez nuen topatu nik nahi nuen ordaina.

Izenburu biak –*Odolekoak* eta *Vínculos*– iruditzen zaizkit liburuaren isla, nahiz eta erdal ordainak odolezkoak ez diren loturak ere iradoki, horiek ere bai baitaude testuan. Umerto Ecok esan zuen moduan, ia gauza bera esatea da itzulpena, eta *ia* hori ez da beti galera.

Bide batez, esan dezadan asko eskertzen diodala Antxiñe Mendizabali izenburua eta orrazte prozesuan eskainitako laguntza guztia. Halaber eskertu nahi diot Aingeru Epaltzari, liburu honen zuzentzaileari, egin duen ekarpen guztia. Guztion lanaren emaitza da *Vínculos*.

Pertsonaien arteko tratamendua

Xede hizkuntzan pertsonaiek euren artean zein tratamendu erabiliko duten finkatzea da edozein itzultzailek hartu beharreko erabaki orokorretako bat, hizkuntza eta kultura bakoitzak bere ohitura eta erabilerak dituenek. Eta erabakigai guztietan bezala, irtenbide bat baino gehiago daude.

Nire joera, normalean, xede hizkuntza-kulturetan ohikoak diren erabileretara egokitzea izan da; frantsesetik gaztelaniarako itzulpenetan, adibidez, jatorrizko *vous* batzuk *usted* eman izan ditut gaztelaniaz, eta beste batzuk *tú*, betiere testu bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Bide bat da; ez bakarra. Ipar Europako idazle baten nobela beltz batzuen gaztelaniazko itzulpenetan (barkatu lausotasuna, baina etxeko apalategietan bilatu arren ez ditut topatu liburuok), esaterako, polizia-etxeko lankideen arteko lehen elkarrizketan oin ohar bat agertzen zen, non azaltzen zen gaztelaniaz ezohikoa izan arren jatorrizkoan *usted*-en pareko tratamendua erabiltzen zutenez *usted* erabiliko zutela gaztelaniaz ere. Onartzen dut horrek jatorrizko kulturari buruzko informazioa ematen digula eta zilegi dela xede testuan hala jasotzea, baina, neure irakurketan, plus horrek ez zuen berdintzen ezohiko *usted* guztiek sortutako deserosotasuna.

Euskaratik gaztelaniarako bidean, jatorrizkoan zuka dihardutenek gaztelaniaz nola jardungo duten erabakitzea izan ohi dut nik arazo: *tú*-ka, *usted*-ka?

Odolekoak/Vínculos liburuan, elkarrizketa zuzenak ez dira oso ugariak, baina, hala ere, oso hastapenetan finkatu nuen pertsonaia nagusiek euren artean zein tratamendu erabiliko zuten. Kontakizunak mende erdi bat baino gehiago hartzen duenez, pertsonaien arteko harremana eta garaian garaiko ohiturak hartu nituen kontuan kasu bakoitzean zer erabili erabakitzeko, eta, oro har, ez nuen zalantza handirik izan, baina bada zer pentsa eman zidan –zigun– kasu bat.

Matilde Etxaluce eta Segundo Vilaguderen ezkontzaren berri emanez hasten da liburua («1941» atala), eta Matilde bera da, Teresa alabarekin eta Amaia ilobarekin batera, nobelaren hari nagusia markatzen duena. Badago, alabaina, ia liburu osoan presentzia handia duen beste emakume bat, Luisa Galarza, Matilderen eta Segundoren neskamea izateaz gain kontakizunaren beste hari batzuetarako bidea ere zabalduko duena. Luisa oso figura garrantzitsua da Vilagude-Etxaluce familiaren mikrokosmosean, hainbestearino non Teresaren bigarren amaren papera betetzen duela esan baitaiteke. Tratamenduetara etorrira, euskarazko testuan zuka dihardute Matildek, Segundok eta Luisak euren artean. Eta gaztelaniaz?

Antxiñe Mendizabalekin komentatu nuen gaia, eta haren lehen harriduraren ondoren –«Ez nuen uste horretaz pentsatzen hasi beharko nuenik itzulpenerako!»–, Segundo eta Luisaren eta Matilde eta Luisaren arteko harremani begira jarri ginen.

Hasieratik izan genuen argi Matilde etxejabeak *tú* esango ziola Luisa neskameari, azken hori zaharragoa izan arren. Nagusia nor den etengabe argi uzten duen emakumea da Matilde, eta beste edozein tratamenduk ez luke behar bezala jasoko pertsonaia horren nortasuna.

Luisak gaztetatik ezagutzen du Matilde, haren gurasoen etxean hasi baitzen neskame, eta gaur eguneko Iruñean, agian, *tú* erabiliko luke Luisak etxeko andrearekin, klase desberdintasuna gorabehera, kontuan hartuz gero urte luzetako harremana eta bien arteko adin tartea. Baina XX. mende erdialdeko Iruñean nekez irudikatzen genuenez halako tratamendua, erabakia izan zen Luisak *usted* erabiliko zuela Matilderekin, eta, are arrazoi handiagoaz, Segundo haren senarrarekin.

Segundok, ordea, *usted* erabiltzen du gaztelaniaz Luisarekin, nahiz eta horrek jatorrizkoan ez dagoen tratamendu desberdintasun bat ezarri. Bat etorri ginen egilea eta biok erabakian, testua gaztelaniaz sortua izan balitz hala egingo zutela uste baikenuen, pertsonaien arteko harremanak

hori eskatzen zuela. Segundok, emazteak ez bezala, Luisarekiko begirunea agertzen du, eta bien arteko *usted* partekatu horrek distantzia ez ezik errespetua ere islatzen du. Liburu honen kasuan, eta baita errealitatean ere, *tú* guztiek ez dute kidetasuna eta gertutasuna adierazten, ezta *usted* guztiek ere hoztasuna; egoeraren, garaiaren eta tokian tokiko ohituren araberakoa izango da hori.

Itzultzailearen oin oharrak

Gai hau ere itzulpen guztietan agertuko zaigu, eta ez zait iruditzen aparteko berezitasunik duenik euskaratik gaztelaniarako jardunean. Beraz, *Vínculos*-en nola jokatu dudana, eta zergatik, azalduko dut jarraian.

Obra bakoitzaren ezaugarriak gorabehera (seguruen, ez dugu berdin jokatu urruneko kultura batekoa den liburu batean edo kulturalki hurbila zaigun batean, klasikoen bilduma baterako ari garenean edo HGLko komiki sorta baterako), oin oharren erabilera beti izan da eztabaidagai itzultzaileon artean: noiz eta zertarako baliatu ditzakegu?, beharrezkoak dira, edo itzultzailearen ezinaren erakusle?, aberastu egiten dute irakurketa, edo oztopatu? ... Auzi honi dagokionez, interesgarria da Jacqueline Henryren *De l'érudition à l'échec : la note du traducteur* artikulua (*Meta* aldizkaria, 2000), eta izenburuak berak ohartarazten digu itzultzailearen harrokeria puntu bat ere egon daitekeela oin oharretan, hots, irakurlea etengabe gu baino ezjakinagotzat jotzeko tentazioa.

Vínculos itzulpenera etorrira, lehenik eta behin azaldu nahi dut oraingo honetan –aurreko itzulpenetan ez bezala– erabaki dudala «N. de la T.» (itzultzailearen oharra) marka ez jartzea oharretan. Normalean, idazleak eman ez dituen azalpenak hari ez leporatzeko erabili izan dut marka hori, baina, kasu honetan, oharron edukia bera kontuan harturik eta zuzenketa-orraketa prozesua kolektiboa izan denez (egilea, editorea, liburuko zuzentzailea eta laurok), egokiagoa iruditu zait inolako markarik ez jartzea.

Horretaz aparte, euskal kulturarekin zerikusia duten azalpenetarako erabili dira oin oharrak liburu honetan, oro har. Gehientsuenak testuan euskaraz utzi diren esaldien itzulpena emateko erabili dira, eta, egia izan arren testuan bertan –parentesi artean– jar zitezkeela itzulpenok, nahiago izan dut orrialdearen behealdera eraman, aipamenak luzetxoak baitira zenbait kasutan. Eta azalpenarekin batera, sakoneko galdera bat agertzen zaigu: zergatik utzi esaldi batzuk euskaraz gaztelaniazko bertsioan? Hona, bada, kasuak eta zergatiak:

- Urdiaingo Urte Berriko eta San Juan Gaueko zenbait koplak. Behin baino gehiagotan agertzen dira liburuan, Urdiaingoa baita Luisa Galarza pertsonaia, eta garrantzitsua iruditu zitzaidan –zitzaigun– koplak horien jatorrizko hitzak bere horretan jasotzea, irakurleak, nolabait, haien musikaltasuna ere jaso zezan. Aipatutako kantuen itzulpenaz gain, aipamentxo bat gehitu dut koplak jatorria adierazteko. Euskarazko testuan ez da berariaz azaltzen, baina euskal irakurleak berehala antzemango du koplak tradizionalak direla; erdal irakurleak, ordea, nekezago. Beraz, esaldi hauek agertzen dira kantuen itzulpenaren amaieran:

Copla popular que se canta la noche de San Juan en Urdiain (Navarra).

Coplas del ritual de Año Nuevo de Urdiain (Navarra).

- Pankarta batean agertzen den testua da euskaraz utzitako beste bat: «Denok kalera. Presoak kalera». Bazegoen zuzenean gaztelaniaz ematea, baina film bikoiztu batean agertuko balitz bezala jokatu dut, hau da, azpitolua/oin oharra emanda. Gainera, Euskal Herria zerbait ezagutzen duten erdal irakurleei ezaguna egingo zaie, seguruen, «Presoak kalera» esaldia, eta iruditzen zait pankarta euskaraz irudikatuta barneratuago senti daitezkeela nobela garatzen den testuinguruan.
- Azken euskal testua 1973ko panfleto bati dagokio. Panfleto ia osoa gaztelaniaz dago jatorrizkoan ere, baina bukaeran honela hasten den paragrafo labur bat dago: «BI HITZ NAFAR MIENTZAIREZ: erdaraz gorago jakiñarazi dugun bezala...». Esanahia gorabehera, garai hartako Iruñean euskarak zuen presentzia publikoaren isla da, eta erdarazko bertsioan ere errealitate horren berri emateko modu eraginkorra iruditu zitzaidan euskarazko testutxo bere horretan uztea, oin oharrean itzulpena emanda.

Oin oharra erabili dut, halaber, *Odolekoak* liburuan frantsesez agertzen diren bi pasarteren itzulpena emateko. Euskarazkoan ez da horien itzulpenik ematen, gaztelaniaz dauden hitzez hitzeko aipuen euskal itzulpenik eskaintzen ez den bezala; agian, euskal irakurleak Euskal Herriko bi erdara nagusiak nolabait ulertzeko gai direla iritzita. Gaztelaniaz, ordea, egokia iruditu zitzaigun horien itzulpena ematea, frantsesa guztiz hizkuntza arrotza zaien irakurleek ere uler zitzen pasarte esanguratsu horiek.

Eta atal honekin amaitzeko, liburuan agertzen diren bi euskal erakunderen izenak eta horietan jarri ditudan oharrak aipatuko ditut.

Emakume Abertzale Batza aipatzen denean, hau irakur daiteke oin oharrean: *Asociación femenina del PNV creada en 1922*. AEK siglen kasuan, berriz, izen osoaren erdarazko itzulpena agertzen da oharrean: *Coordinadora de Euskaldunización y Alfabetización*.

Lehen kasuan, berriro ere, jatorrizkoan ez dagoen azalpen bat gehitu da. Euskarazko testuan, *Emakume Abertzale Batza* agertzen da, azalpen gehiagorik gabe, nahiz eta gaur egungo euskal irakurle nahikotxok erakunde horren berririk ez izan, baina gaztelaniaz bestela jokatzera erabaki genuen.

AEKren kasuan, berriz, euskal irakurle gehienek (denek ez esateagatik) ezagutuko dute erakundea eta erakundearen testuingurua; ez, ordea, Euskal Herritik kanpoko erdal irakurleek. Hala eta guztiz ere, aipamenak kontakizunaren barruan duen papera ikusirik, nahikoa iruditu zitzaigun izenaren erdal itzulpena ematea, irakurle bakoitzaren esku utziz hari buruzko informazio gehiago bilatzea edo ez.

Genero markak, maskulino generikoa

Euskaratik gaztelaniarako itzulpenetan agertzen zaizkigun zenbait arazo iturri nabarmentzen ari naizenez, gogoeta zabalago baten barruan kokatu beharreko puntu bakar bat jorratuko dut atal honetan: gaztelaniazko maskulino (ustez) generikoaren erabilera.

Esan bezala, ez dut testuinguru zabalago hori xehatuko –hizkera inklusiboa, hizkuntza akademien arauen neutraltasuna-partzialtasuna, itzultzaileok gai honetan hartu beharreko jarrerak...–, baina horiei buruzko gogoetek eragin handia izango dute gure erabaki zehatzetan,

genero markarik gabeko hizkuntza batetik halakoak badituen beste batera ari garenean nola jokatu ez baita, inondik inora, kontu linguistiko hutsa.

Nik neuk, duela zenbait urte, ez niokeen lerro bat ere eskainiko gai honi. Zertarako, egia absolututzat banuen gaztelaniaz maskulinoa generikoa zela? Tripako mina hasten zitzaidan *Los derechos del hombre* eta halakoak entzunda, bai, baina, aldi berean, guztiz barneratua nuen itzultzaileak hizkuntza arauetara erabilereira baino ez ziela men egin behar, hori zela jokabide zuzena, norberaren ikuspegiak albo batera utzi behar zirela (inozoa ni; hori posible zela sinestea ere!). Beraz, *auzokoak*, gaztelaniaz, *los vecinos* esaten zen, eta kito.

Zenbait urteren buruan, aldiz, gure inguruko errealitatea ez da lehengo bera, ni neu ez naiz lehengo hura, eta, ezinbestean, nire ikuspegiak eta jarrera aldatu egin dira. Hasteko, gaztelaniaz idazten dudanean, ohitu naiz generikotasuna adierazteko maskulinoa ez diren bestelako bideak erabiltzen, eta horrek nahitaez izango du isla nire itzulpenetan. Horren adierazle izan daitezke *Vínculos*-eko 2005eko kapituluaren dagoen esaldi hau:

*Ikurrinei eta bandera errepublikarrei eusten diete **batzuek, beste batzuek** lore sortak ekarri dituzte. Adineko **gizon-emakume asko** daude makilaz lagunduta omenaldia zutik jarraitzen.*

***Hay quien** sostiene ikurriñas y banderas republicanas, **otra gente** ha traído ramos de flores. **Muchas personas** de edad siguen el homenaje en pie, apoyadas en sus bastones.*

Aldaketa nagusia, dena den, gaia bera gogoan hartzea izan da, eta, ondorioz, kontziente izatea edozein jokamolde hautatzen dugula ere aukera geurea dela.

Horretaz jabeturik, Antxiñe Mendizabalekin aipatu nuen gaia, eta biok adosturik erabaki genuen liburuaren parte handiaren maskulino generikoa erabiltzea komeni zela, nobelan agertzen ziren garaietako ohiturekin bat eginez. Narratzailearena denez kontakizunaren ahots nagusia, beste aukera bat izan zitekeen narratzaile horrek maskulino generikorik ez erabiltzea testu osoan, baina hala jokatzek jatorrizkoan ez dagoen bereizketa sortuko luke garaian garaiko elkarrizketekiko edo hitzez hitzeko aipuekiko. Hala ikus daiteke 1941 urteko ataleko pasarte honetan:

*Kalei gerraosteko gris kolorea eta atsekabea zerien, tropak ikustera behartuta espaloietan zeuden **bizilagun etsituei** bezala.*

*Las calles, al igual que **los resignados vecinos** obligados a saludar a las tropas desde las aceras, desprendían (...)*

Joan den urtean, eta *Vínculos* libururako, horiek izan ziren erabakiak; hurrengo liburuetan nola jokatuko dudanez dakit, baina badakit erreparatuko diodala gaiari.

Euskararako bidean ikasitakoaren ifrentzia

Zein itzultzailek ez du entzun, irakurri, pentsatu honelakorik?: gaztelaniazko posesibo asko kendu behar da euskaratzerakoan, aditz pasibo eta inbertsonalak aktiboak izaten dira maiz euskaraz, ondo erreparatu behar zaio esaldiaren barruko ordenari euskaratzen ari garenean...

Bada, halakoei buelta ematea da gaztelaniara jarduten dugunean egin beharreko urratsetako bat.

Edozein itzultzailearentzat nahiko begi-bistako kontuak direnez, ez naiz asko luzatuko, baina adibide gutxi batzuk ekarriko ditut, halakoen erakusgarri.

Posesiboak

Posesiboei dagokienez, esango nuke askoz arrisku handiagoa dugula euskaraz beharrezkoak ez diren posesiboak uzteko –jatorrizkoaren eraginez–, gaztelaniaz behar direnak ahazteko baino. Honako adibide hauetan, adibidez, ez zait iruditzen inork ahaztuko lukeenik erdal posesiboa:

*Ezkongaietan egon diren denboran, Matildek ez du jakin nahi izan ezer asko **senargaiaren** bizitzari buruz.*

*Durante el tiempo que ha durado el noviazgo, Matilde apenas ha querido saber nada sobre la vida de **su prometido**.*

*Beraz, **gurasoen** sorlekua bisitatu eta agudo jo zuen Madrilera.*

*Así, tras una rápida visita a la tierra natal de **sus padres**, partió hacia Madrid.*

Azken adibide horretan, jatorrizkoa gaztelaniazkoa izan balitz, ez nintzateke harrituko norbaitek «bere gurasoen» edo «haren gurasoen» jartzeko tentazioa izan balu, inertzia hutsez bada ere.

Eta puntu honi dagozkionak amaitzeko, *Vínculos* liburukoa ez den azken adibide bat emango dut, hizkuntza bakoitzak duen jokabidea ezin argiago adierazten duelakoan:

*Berokia **jantzi dut** – **Me he puesto** el abrigo – **J'ai mis mon** manteau.*

Modu aktiboak vs pasiboak/bihurkariak

Euskal itzultzaile guztiok ondo gogoan dugun zerbait da hizkuntza erromanikoen eta euskarak ez dituztela modu aktiboak, pasiboak eta bihurkariak maiztasun berarekin erabiltzen. *Odolekoak/Vínculos* itzulpenean ugariak dira horrelakoak, baina adibide gisa hiru esaldi labur emango ditut:

*«Badakizu gauzak nola dauden!», **bestarik ez zion Bixenek erantzun.***

***La única respuesta de Bixen fue** «¡Ya sabes cómo están las cosas!»*

***Amparok idazten aurkitu du** Teresa bere gelan. Egunkaria itxi du ahizpa ikusi orduko.*

***Sorprendida por Amparo** mientras escribe en su cuarto, Teresa cierra el diario nada más ver a su hermana.*

*(...) nekez **hartuko dutela** inguruko enpresaren batean.*

*(...) **le costará** mucho encontrar trabajo en alguna empresa de los alrededores.*

Lokailuak eta puntuazioa

Atal honetan ere, esamolde bakar bati erreparatuko diot, askoz zabalagoa den aztergai baten adierazle. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere arauak dituenez, efektu bera lortzeko zeinek bere bidea, ugariak dira itzulpenetan egoten diren lokailu eta puntuazio aldatetak. Aukeratu dudan esamoldea «, eta» koordinazio modua da, esanguratsua delakoan eta horrelakoei arreta emateko balio dezakeelakoan.

Euskarazko testuetan, oro har, eta baita *Odolekoak* liburuan ere, maiz agertzen den formula da «, eta» hori, eta itzulpen begi-bistakoena –hots: «, y»– berez zuzena den arren, kasu guztietan horrela jokatzek guztiz alda dezake xede testuaren estiloa. Egin ezazue aproba testu luzetxo batekin, eta ikusiko duzue (niri, bederen, hala iruditzen zait) euskaraz erritmo jakin bat –zuzena, itzulingururik gabekoa...– markatzen duela, baina, gaztelaniaz beti «, y» jarritz gero, ordea, errepikakorregia eta pobrea-edo gelditzen dela. Horregatik, jatorrizkoaren erritmo eta efektu bera birsortzeko asmoz, zenbait ordain eman ditut gaztelaniaz.

Hasteko, esan behar dut lehen zirriborroan «, y» askoz gehiago agertzen zirela, inertiaren eraginez, esaldi edo paragrafokako ikuspegiaren ondorioz, jatorrizkotik behar baino gehiago urruntzeko beldurrez... Testu osoaren ikuspegia hartuta, berriz, bai zuzentzailea eta baita neu ere horrek sortzen zuen karranka itsusiaz ohartu ginen. Jarraian zehaztuko dut euskarazko «, eta» horiek gaztelaniaz nola gelditu diren.

Kasu batzuetan, «, y» agertzen da xede testuan, hori baitzen gaztelaniazko jardunak eskatzen zuena. Ez ditut portzentaiak zehatz aztertu, baina erdia-edo izango direla esango nuke.

Beste kasu batzuetan, puntuazioa aldatu dut gaztelaniaz, komaren ordez puntua edo puntu eta koma jarrita.

Puntua:

*«Nire gerra-amabitxiari, nire esker onaren eta estimuaren erakusgarri» dago azpialdean eskuz idatzita, **eta** jarraian Martinen sinadura eta data.*

«A mi madrina de guerra, en muestra de mi agradecimiento y estima» aparece escrito a mano en la parte inferior. A continuación, la firma de Martín y la fecha.

*Conchik behin ikusi du alaba etxetik joan zenetik, **eta** tarteka telefonoz deitzen dio etxera, Javier kanpoan dela kontuz ibiliz.*

Conchi solo ha visto una vez a su hija desde que se marchó de casa. De vez en cuando la llama por teléfono, cuidando que Javier esté fuera.

Puntu eta koma:

*...konturatu zen senide guztiek bertan behera utzita zeukatela, **eta** Teresa bera ere egon zen behin baino gehiagotan ez itzultzekotan.*

...se dió cuenta de que el resto de la familia la había dejado de lado; la propia Teresa estuvo más de una vez a punto de no volver.

*Duela urte eta erdi jaso zuen lehenengo abisua, **eta** geroztik izu-ikara batean bizi izan da.*

El primer aviso lo recibió hace dos años y medio; desde entonces vive dominado por el pánico.

Beste zenbait kasutan, «que» partikula erabili dut, bere horretan edo preposizio batez lagunduta. Noiz den konjuntzioa eta noiz izenorde erlatiboa... hizkuntzalaritzaz nik baino gehiago dakitenek esango dute. Hona adibideak:

*Arasaren apaletako batean dagoen egunkari eta aldizkari pilak deitu dio arreta Teresari, **eta** kuxkuxean jaiki da.*

*Un montón de periódicos y revistas sobre uno de los estantes del armario llama la atención de Teresa, **que** se acerca a curiosear.*

*Pablo inoiz ez da Matildereren erasoetatik Segundo defendatzen ausartu, **eta** horrek koldar bihurtzen du bere kautan, Segundo bezain koldar.*

*Pablo jamás se ha atrevido a defender a su padre frente a los ataques de Matilde, **lo que** lo convierte, en su fuero interno, en un cobarde; tanto como Segundo.*

*Oinak arrastaka zeramatzala ohartu zen Teresa, **eta** atzetik jarraitu zion.*

*Teresa advirtió que arrastraba los pies, **por lo que** la siguió.*

*Matilderi zer moduz zegoen galdetu, **eta** «bihar zinemara joango gara» erantzun zion agintzaile.*

*Segundo le preguntó qué tal estaba, **a lo que** ella respondió autoritaria, «mañana iremos al cine».*

Euskaraz juntagailu kopulatiboa zena adbertsatiboa bilakatu da beste batzuetan:

*Handik egun batzuetara, zurikerietan joan zitzaion Matilde, geratzeko eskatuz, **eta** Luisaren ezezkoa zalantzarik gabea zela jabetuta, «neskame berria» bilatu arte geratzeko esan zion agindu-kutsuaz.*

*Unos días más tarde, Matilde fue a pedirle que se quedara, entre halagos y zalamerías, **pero** al comprender que la negativa de Luisa no dejaba lugar a dudas, le dijo con tono autoritario que se quedara hasta que encontraran «una nueva criada».*

Eta, irtenbideen adibideekin amaitzeko, jatorrizkoan koordinazioa zena menderakuntza bilakatu den esaldi bi ekarriko ditut:

*Estalpea jarri ondoren irten dira biak kalera, **eta** Gobernu Zibilaren inguruan desfilatzen ari diren gazteekin egin dute topo.*

*Después de poner el belén, salen las dos a la calle, **donde** se topan con los jóvenes que desfilan cerca del gobierno civil.*

*Ez zuen zuzendarietako batekin hitzordua lortu arteko onik izan, **eta** nobleziaren eta dotoreziaren ikur ziren auto saltzaile bihurtuta irten zen bulegotik.*

No descansó hasta conseguir una cita con algún directivo, de cuyo despacho salió convertido en vendedor de aquellos vehículos símbolo de nobleza y elegancia.

Aurreko adibide batzuetan, esaldiaren barruko ordena ere aldatu da, baina artikulua honetan ez dut horretaz jardungo.

Euskal toponimoak

Txikieria eman badezake ere, buruko min bat baino gehiago sortu izan dizkit euskal toponimoak –batez ere ezagunenak–, gaztelaniaz nola eman erabakitzeak. Gaur egungo izen ofizialak erabili? Beti erdal izendapena aukeratu? Arrazoiren batengatik gaztelaniaz ere Donostia jartzea hautatu badugu, nahitaez erabili behar dugu Bilbo, Gasteiz, Donibane Garazi?... Galdera ugari eta erantzun erabatekorik ez.

Kontakizuna noiz gertatzen den, obraren barruan dauden ahotsen ezaugarriak zein diren... halakoen arabera jo izan dut bide batetik edo bestetik, testuaren barne koherentzia zainduz. Eta *Vínculos* nobelan, argia izan da erabakia: erdal izenak eta erdal grafia erabili dira kasu guztietan.

Odolekoak eleberria Iruñean gertatzen da gehienbat, eta hiriburu horren izena 1941 urteko atalean aipatzen da lehen aldiz:

1940 urteko abuztuan egokitu zitzaion Iruñera bidaiatzea, hegazkin alemaniarrek Erresuma Batuko hiriak bonbardatzen hasi ziren garai berean.

Donostia izena, berriz, 1945 urteko atalean azaltzen da lehendabizikoz:

Javierrek biharamunean esan zionez, Donostiako Seven Young jazbanak sekulako giroa jarri zuen.

Uste dut bi adibide horietan argi gelditzen dela gaztelaniazko testuan *Pamplona* eta *San Sebastián* izan behar zutela nahitaez; Javierrek, Iruñeko frankista erdalduna bera, sekula ez zuen «Donostia» esango 1945ean. Eta, horren eskutik, gainerako euskal toponimoak ere gaztelaniazko grafiaz eman dira: *Ayegui, Ezcaba...*

Ama

Artikuluari bukaera emateko, kontu puntual bati begiratuko diot: «ama» hitzaren itzulpenari, hain zuzen ere. Asmatutako esaldi bat baliatuko dut adibidetarako: *Zer moduz zaude, ama?* Nola emango zenukete gaztelaniaz?

Demagun mintzo dena Zaragozako herrixka batean bizi dela, 1950ean, eta 40 urte dituela; halako egoera batean, *¿Qué tal estás, madre?* galdetuko lukeela uste dut. Alabaina, herri berean, baina XX. mende amaieran, *¿Qué tal estás, mamá?* esango lioke umetxo batek amari. Eta XXI. mendeko Iruñean, edo Bilbon, nola esango lioke neska gazte batek amari, biak gaztelaniaz ari direnean? Bada, nire iritziz, kasu askotan *¿Qué tal estás, ama?* erabiliko luke. Hori pentsarazten dit inguruan entzun dudanak, baita Euskal Herriko erdal idazleen testuetan ikusitakoak ere, zenbait kasutan *ama* irakurri baitut gaztelaniazko liburuetan (Pedro Ugarte datorkit gogora), errealitatea hobeto islatzeko.

Odolekoak/Vínculos lanean, amatasuna gai nagusietako bat izan arren, bitan baino ez da agertzen «ama» hitza zuzeneko erabileran. Lehendabizikoan, 1951 urtean, seme txikia ari zaio Matilde amari:

Ama, ama, munduko andregairik politena zara, ezkondu zaitetz nirekin.

Urte horretan, Iruñean, familia frankista batean, egokiena *mamá* zela erabaki nuen:

Mamá, mamá, eres la novia más guapa del mundo, cástate conmigo.

Aurrerago, aldiz, 2004ko atalean, *ama* erabili dut gaztelaniaz ere.

Amaiaren txanda da. «Ama...» deitu dio Amaiak.

Es el turno de Amaia. «Ama...», la llama su hija.

Garaia ez ezik, pertsonaien ezaugarriak ere desberdinak dira bi adibide horietan. Amaia Matilderen iloba da, baina aitaren aldetik familia euskalduna du, eta, amarekin gaztelaniaz hitz egin arren, ez litzateke oso erreala izango *mamá* esatea.

Beste kasu batean ere sortu dit arazoa *ama* horrek, edo, hobeto esanda, *Nork maite zaitu amatxok baino gehiago?* esaldiak. Matildek esaten dio seme txikiari, eta, pertsonaia horren ahoan, *mamá* litzateke, dudarik gabe, *amatxo* horren ordaina, oro har. Baina, esaldi horretan beste zerbaitek egiten du krak, *¿Quién te quiere más que mamá?* ez baita batere normala, ez du ondo ematen belarrira. Ez dakit zuzen nagoen, baina, nire belarrira, *¿Quién te quiere más que mamá?* horretan euskaraz ez dagoen distantzia bat antzematen da, *amatxo* ere hirugarren pertsonan egon arren.

Buelta batzuk emanda, amaren aipamen zuzena kentzea izan zen irtenbidea, mintzo dena ama denez argi gelditzen baita bera dela gehien maite duena. Gaztelaniaz, honela geratu zen: *¿Quién te quiere más que yo?* Aldaketa xede testuaren onerako izan zela uste dut.

Agurra

Honaino nire kontakizuna. Badakit ez dudala lurralde berririk deskubritu, kezka ugari eta irtenbide gutxi azaldu ditudala eta, seguruen, azalean geratuko nintzela kasu askotan. Izan ere, oso helburu xumea izan da nirea: jardunean topatutako oztopo nagusi batzuk zerrendatzea, fokua haietara bideratzea, guztion artean eztabaidatzen eta irtenbideak proposatzen jarrai dezagun.